

Omenez eta oroimenez: Klaudio Harluxet

Abenduaren 16an hil zitzaigun Klaudio Harluxet, hil luzetako gaitza jasan ondoren. Handik bi egunetara izan zen hiletan, Baionako San Andres elizan. Adierazgarria Iparraldetik eta Hegoaldetik bertara bildu zen jendetza, sail ezberdinetako jendea. Urtearen hasieran galdu genuen Joxemi Zumalabe; urtearen amaieran joan zitzaigun Klaudio: biak minbiziak jota. Bien artean kidetasun handirik aurki dezakegu, euskal kulturgintzaren eragile eta enpresari biak. Galera handiak 1993an euskal kulturgintzan izan genituenak.

Euskal kulturako langile eta lankide handia galdu dugu: gazterik! Bera ez zen euskal kultur arloko jakineko eta bakarrekoa; alor ugartan zuen bere gogoan jarria eta proiektu anitzetan hartu zuen parte bizia: Ikastolan, aldizkaritzan, Unibertsitatean... Hizkuntzari profesional izan gabe, euskararen normalkuntzarako eta modernizaziorako programa askotan eman zuen bere lana eta bere aholkua... Informatikaria zen Klaudio, ikastez, irakastez eta lanez. Informatikako enpresaria era bai. Eta informatikaren baliabideak euskal kulturako eta euskararen normalkuntzako proiektuetarako sortzen eta egokitzen saiatu zen. Euskal kultura eta informatikaren kultura lotzen erakutsi zigun, sinetsita zegoenez bera, euskarak eta euskal kulturak ez daukatela inola ere informatikaren apostua galtzerik gaur egun. Euskararen bizi-arazo zen hori, berarentzat.

UZEIko hiztegigintzaren programa informatikoen diseinuan, EUSENORen entziklopedigintza-proiektuan, eta euskalgintzako beste hainbat talde eta erakundetan hurbileko aholkulari, partaide eta lankide izan zen bera. Zalantzarik gabe, garrantzizkoa eta sarritan erabakiorra izan zen beraren eragina, euskalgintzaren munduan baliabide informatikoa konfiantzaz eta indarrez sartzeko. Hizkuntzen industriren mundu informatizatuan euskara tinko sartu nahian dabilen honetan, Harluxeten aintzindaritzan aitortu beharko da.

Klaudio ez zen zarata handikoa, baina bai sakonetik kezkatua eta arduratua gure Herriaren etorkizunaz. Bere ixilean gure Herriko arazo sozial, kultural eta politikoetan oso gertutik zebilen. Euskalgintzako herri-mugimendua ere oso barrutik jarraitzen zuen: behin baino gehiagotan etorri zen EKBren asmoen, proiektuen eta ibilbideen jakinminez eta galdezka ere. Hanka bat Iparraldean eta bestea Hegoaldean, beretzat ez baitzegoen Euskal Herria bakarrik.

Esker ona zor diogunez, bihoakio bertatik eskerrik beroena, gure omenarekin eta oroimenarekin batera.

EKB2000